

Baso kudeaketa jasangarriaren zigilua berri du Aenorrek

Aenor ziurtagiri-emaileak baso kudeaketa jasangarriaren sistema gure baso eta jardunean behar bezala errotuta dagoela aitortu berri du. Aurtengo jarraipen ikuskaritza Gipuzkoako lurralde historikoan burutu dute eta azterketaren ondorioz, Aenorrek aitortu du kudeaketa jasangarriaren zertifikazioa Euskal Autonomi Erkidegoko 96.594 hektariari egotzi dakiokela. Aurtengo ikuskaritzan 3.645 gehiago aitortu dizkigute.

Ikuskaritza berri honetan, Aenorrek baso jabe gipuzkoarrak aztertu ditu eta txostenean azpimarratu du baso jabe hauek mendi eta basoetaz duten ezagutza. Puntu indartsuen artean jaso du hori ziurtagiri-emaileak eta baita jabeek baso kudeaketa sistemaren inguruan duten ezagutza eta aurkeztutako dokumentazioa.

PEFC (Basalde Euskadi) zigilua eramaten jarraituko dute gure basoek, beraz. PEFC mundu osoan hedatuen dagoen basogintza sistema kalifikatzailea da eta basoak era arduratsu eta jasangarrian kudea daitezzen du helburu nagusi. Sistemak basogintza kudeaketa jarraibideak amankomunean adostu eta jokabide egoki eta zuzenen kodigoak erabiltzera bultzatzen du.

PEFC ziurtagiri edo zigiluak bermea ematen die mundu osoko kontsumitzaileei. Hau da, basogintzatik datozen hainbat eta hainbat produktu (egurra, papera, kortxoak, perretxikuak, arraxinak, esentziak, etab.) erosten ditugunean, hauek era jasangarrian kudeatutako basoetatik datozela ziurtatzen digu, era honetan “biodibertsitate biologikoa eta hainbat ekosistema anitzen iraunkortasuna” errazten dugularik.

GIPUZKOAKO
BASO ELKARTEA

**ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA**